

Etniker Euskalerria



Etniker

Cincuenta años de investigación etnográfica en Vasconia

CAPÍTULO 15

ETNIKER EUSKALERRIA

Etniker

Cincuenta años de investigación etnográfica en Vasconia

CAPÍTULO 15

Coordinación:

Naiara Ardanaz-Iñarga



Universidad
de Navarra

EUSKAL HIZKUNTZA
ETA KULTUR KATEDRA



Etniker Euskalerria, 1

Imagen de cubierta:
Reunión en St. Martin d'Arbourue-Isturitz (2011).

Este libro ha contado
con financiación del Gobierno de Navarra.



© Etniker Euskalerria, 2021.

Diseño y distribución:

Lamiñarra

(laminarra@gmail. com)

Maquetación:

David Mariezkurrena Iturmendi

D. L.: NA 1717-2021

ISBN: 978-84-09-35513-6

Imprime: Rodona Industria Gráfica

Pamplona/Iruñea

Etnikerlaria: esperientzia etnografiko eta historikoan, barrengo sakonetik abiatuz

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea¹

<http://orcid.org/0000-0003-0487-025X>

Sarrera: Joxemiel Barandiaranen gutuna

Joxemiel Barandiaranek *Etnikerlaria* izena erabili zuen, Etniker inkesta oinarri harturik, ikerketa etnografikoa burutzeko, ikerlariaren berezko zeregina. 1974an idatzi zidan gutunean agiri zaigu *Etnikerlaria* izena. Jakin ez dakit oraingoz beste inon lehenago edo geroago erabili ote zuen, idatzian behintzat. Baina ia 50 urteren buruan berriz ere bere gutuna irakurri eta gero, agiri diren beste albiste eta ikuspegiak baino garrantzitsuagoa iruditu izan zait *Etnikerlaria* izena, ofizio edo zeregin baten adierazpena baita.

Baina gutunean, epistemologiaren baitako gogoeta ere egiten du gure ikerketa maisuak, hain gogoko dudan epistemologian, 1970ko Derioko Seminarioan filosofia ikaskuntzak egin ondoren, hain zuzen ere. Horra bere tesi nagusia: «*teoria ez da izakeraren ixpilu, ez bada ikerketen bidez sustraitua*». Beraz, ikerketa burutu behar da ikerketarako grinaren bidez eta ikerketan sustraitua sortzen da teoria, unean unerako teoria baliagarria. Teoria berezko izaeraren bidez ez da sortzen ez eta berritzen ere, ez bada ikerketarik burutzen. Teoriak ikerketetan sustraituak daude eta beraz *corpus* enpirikoak sortu eta osotu behar dira. Baina aldi berean, *corpus* horren sorrera eta premia bestelako ikuspegi eta asmo batzuen eraginez ere buruturik dago, eta horrela, bata bestea elikatzen du, enbor bereko ezpalak alegia.

¹ Gaur egungo Historian Katedraduna. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ataun'ok, 1974^{ko} Oribillaren 14^a
Joseba Agirreazkuenaga jaunari
Bilbo'ra

Adiskide!

Atu dot zure eskutitza; baita udan etniker-ikaskuntzai buruz
egin nai dezuten lanaren araua ere.

Ondo dagoala dirizkiot arauari. Gai ortarako Oñatia'n ez dot
neste lagunaldi eundia bilbu al dithekanik: etnikerlari gutxi geraldako.
Nun-nai iraten dire gutxi ikerketak egiten jardun direnak. Alaz ere lan-
tze ori da ikaskuntzaen oinarria; ori ez dan lekuan teoria da mugari.
Bainan teoria ez da irakerraren ixpilla, ez ba-da ikerketen bidez sustraitua.
Zoritzarrez euskaldunetaz aiki teoria dabilte munduan zear; bainan lal-
kal-irakera antetzaa — xailago bail da — albona utzi oi degu. Etnikerlarion
bidez nai genduke etseine ori bete. Euskalerrian 35 ikerlari ari gera lan orten;
sekulan baino geiago; bainan laupille berriak geienak.

Leen-bait leen burutu ikeritue aitako ikerketak, oraingo urtechari edo Amurri

dalarkoan argitaratiko. Agertua da aldizkari orren XXIV^a atala. Orain antola
beaz degu XXV-garrena; or nai nituzke, baten ere Bizkaia'ko ikerlarien la-
nak argitaratu.

Illakete ontan egingo degu Amostian Gipuzkoa'ko etnikerlarion billera.

Zuk hial diadun argarkian ez dot ikusten gurutze bat eta izki bi beste-
rik. Gurutze ori, diudienaz, potenzak izeneko da.

Beste aldi bat arte, eta ondo ibili

Barandiaran's *Joseba*

Dena dela, gutunaren bidez, agindu argi eta zehatza bidali zidan, uni-bertsitatean ikasle nintzelarik kezka betetik nengoela igarri bait zidan, agian: lehen bait lehen amaitu beharra nuen nire etnografiako eginkizuna inkestaren bidez.

Egia esan, inkesta betetzen hasi aurretik, gazte eta herritarren arteko auzo zereginetan sartua nengoen, Seminarioko hezkuntzaren eraginez, halabeharrez, ekintzabidean aritzeko agindua genuelako. Horrez gainera, txistularia izanik Busturiko *Irrintzi Alai* dantza talde sortu berrian ari nintzen². Beraz, ume aroko herriko eskolaren ondoren, gaztaroan Busturitarren arteko berezko murgiltzean nengoen eta giro horretan hasi nintzen etnografia burutzen, inkestaren bidez, *etnikerlaria* bihurtuz.

Azken lerroan, Busturiko elizako sarrera batean dagoen gurutze zizelduaz egin nion galdera Barandiaran maisuari eta hemen ematen du erantzuna.

Ataundik 1974go Orrilaren 14n
Joseba Agirreazkuenaga jaunari
Bilbora

Adiskide!

Hartu dot zure eskutitza: baita udan etniker-ikaskuntzai buruz egin nahi dezuten lanaren araua ere.

Ondo dagoala derizkiot arauari. Gai hortarako Oñatia'n ez dot uste lagunalde haundia bildu al ditekeanik: etnikerlari gutxi geralako. Nun-nahi izaten dire gutxi ikerketak egiten jardun direnak. Halaz ere lanbide hori da ikaskuntzen oinarria; hori ez dan lekuan, teoria da nagusi. Baina teoria ez da izakeraren ixpilu, ez bada ikerketen bidez sustraitua. Zoritxarrez euskaldunetz aski teoria dabiltz munduan zehar; baina euskal izakera aztertzea –zailago bait da– albora utzi ohi degu. **Etnikerlarien** bidez nahi genduke hutsune hori bete. Euskalerrian 35 ikerlari ari gera lan hortan: sekulan baino gehiago: baina langile berriak gehienak.

Lehen bait lehen burutu itzatzue hasitako ikerketak, oraingo urtekari edo Anuario dalazkoan argitaratzeko. Agertua da aldizkari horren XXIV atala. Orain antola behar degu XXV.garrena. Hor nahi nituzke, batez ere Bizkaiko ikerlarien lanak argitaratu.

² *Busturiko Irrintzi Alai Dantza Taldea, 50 urte (1968-2018)*. Busturia, 2018.

Hilabete honetan egingo degu Donostian Gipuzkoako etnikerlarien bilera.
Zuk bidali didazun argazkian ez dot ikusten gurutze bat eta izki bi besterik.
Gurutze hori, dirudienez, potenzada izenekoa da.
Beste aldi bat arte eta ondo ibili

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

Etnikerlari Busturin eta ikasle unibertsitatean

Jakin minak ikerketarako grina pizten du eta ikerlariaren lehendabiziko abiapuntua dugu. Eta hara non, neure lehen ikerketa esperientzia etnografikoa berrikusten ari naizela, oraingo nitasunetik abiatuturik, duela 50 urteko nitasuna, zergatiak, gertaeren zergatiak, kezka, kontzienteak eta ez hain kontzienteak, arakatzekotan nagoela. Horrela, *Etnikerlaria* izan nintzeneko garaia eta esperientzia gogoeta gai bihurtzen dut oraingo honetan.

Etnikerlaria izaten Derion, filosofia ikasketak burutzen ari nintzela, abiatu nintzen (1972) eta ondoren Deustuko unibertsitatean ikasle nengoela, Derioko lankideekin jarraitu nuen.

Baina, une batez aitortu behar dut, nire Deustuko unibertsitateko irakasleen aldetik etnografiarekiko ezjakintasuna eta beraz, ezagutza eza medio, bestelako bidea hartu nuen. Ibilbide akademikoan aukeratu beharra nuen, eta historia eta soziologiako ikasle izanik etnografiarena bidezkoa ez zelakoan, historiako ikasketak lehenetsi, eta historia akademikoan murgildu nintzen, doktorego tesia burutzeko beka eman zidatelako. Baina historia egiteko, etnografia baliagarria zela eta dela ez dut zalantzarik eta nire ikerketa askotan etnografiaren eragina nabarmena da. Hain zuzen, gogoz irakurri nuen Julio Caro Barojaren *Etnografia histórica de Navarra* (1971).

Maria Angeles Larrea eta Santiago Petseren artean asmatu zuten nazioarteko ikerketa proiektua, 1979an, gaur egungo euskal gizartearen jatorriaren oinarriak zelarik/zirelarik ikerketarako asmo nagusia. Deialdian parte hartzeko nazioarteko proiektuaren proposamenaren alde batetik, Nevadako Unibertsitateko William Douglass eta Jon Bilbao, Basque Studies Programeko arduradunak, parte hartu zuten eta, bestetik, aipatu ditugun Deustuko unibertsitateko irakasleak. Azpi-ikerketa talde bien ikerlari nagusi Julio Caro Baroja izan zen. Espainiako atzerri arazoetarako ministerioak deitzen zuen lehiaketa publikoan irabazle atera zen proiektua eta lau ikerlari gazte

aukeratu zituzten doktorego tesia burutzeko. Etnografian eta antropologian ikertzaile jaioak zirenak izan arren ikerketa taldearen burua, azkenik gaur eguneko historia akademiko arautuaren baitan kokatu zen nire ikergaia, XIX mendean kokatuz lege zaharraren kinkan. Halere, etnografiaren eragina eta aztarnak, bai metodologian baita edukietan ere, nire ikerketa historiko guztietan nabarmenak izan dira.

Gaurko ikuspegitik begiraturik, esan beharra dago, Gizarte Zientzietan, arlo guztietan, etnografiak, metodo gisa, berebiziko indarra eta eragina irabazi duela, baina 1980ko historia akademikoaren testuinguruan ez zen horrelakorik nabari.

Nire zientzia historikoen ikerketetan ere, etnografiazko ikuspegia argia eta nabarmena dela esango nuke. Jatorrizko iturri eta sorburu kopuru eta berriak biltzen saiatu izan ohi naiz, ondoren gogoeta eginez ezagutza berriak sortzeko. Testuinguru honetan azpimarratzekoa da Walter Benjaminen gogoeta filosofikoa, ezagutza oro eta datu xumeen bilduma ere, unean uneko interpretazioaren adierazpidea baino ez dela eta, beraz, interpretazioa esaten duguna; gure ekintza zientifikokoaren berezko abiapuntua dugu alegia, zientzia gure barrutik asmatu eta sortzen dugulako. Zientziak ebidentzian du oinarria, baina berezko balizko datuen bilduma soila gogoetaren ondokoa ere bada. Datua bera eta datuen bilketa bera ere, interpretazio edo uste jakin batzuetan oinarritzen dira. Horixe baita zientziaren bereizgarria eta edertasuna, amai gabeko eta erabat lortu ezinekoa izanik beti, belaunaldiz belaunaldi, azaltzen zaigula zabalik. Ezagutza berri guztiak unean uneko interpretazioaren agiria eta azalpena baino ez dira, eta interpretazio berriak irabazten lortzen ditugu ezagutza berriak.

Azkenik, aipatu beharra dago *Etnikerlari* hasi nintzen lehen garaian, 1972-1975 urte bitartean, estatu totalitario batean bizi ginela, ekonomia arloan kapitalismo liberalaren garapena azkarra izan zen arren. Giro hori ahaztu ezinekoa da, bizitza publikoaren arloan, hau da politikagintzan, bestelako esperientziak ere bizi izan nituelako, baina bizitza berean ekintza paraleloak balira bezala hezurmamituz joan zirenak. Oraingo honetan ez du merezi bestelako aipamen eta gogoetarik egitea, baina giro hori ezkutatu ezinekoa da. Gure hasierako esperientzia etnografikoan lortu eta azaleratu nituen, frankismoaren ezarpen totalitarioaren garaian, ezkutukoak ziren hainbat informazio, zehazki, 1937an herrian (Busturian) eta herritar batzuen

aurka eragindako errepresioa eta fusilamenduak. Hitz egiteko beldurra ere sumatu nuen. Etnografiatik abiatuz, ezaguna ez zena ezagutzen eta agerikoa bihurtzen, lagundu nuen.

Etnografiaren ikasle

1969an, batxilergoko seigarren urtean, beraz 16 urterekin, Derioko Bizkaiko eliz barrutiko Apaiztegia nengoela, Euskal Herriko etnografiaren inguruko lehendabiziko ikastaro trinkoa burutu nuen. Ez dakit nori otu zitzaion ikastaroaren antolaketa. Ikastaroko irakasleetako bat Jose Maria Satrustegi izan zen, Urdiaineko (Nafarroa) apaiza. Urte berean sortu ziren *Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra*, Principe de Viana erakundeak argitaraturik Iruñean; ikastaroaren ondoren, aldizkari zientifiko berriaren harpide egin nintzen. Niretzat Euskal Herriari buruzko ikastaroa ere izan zen, natur zientzietatik haratago hurbileko ingurua aztergai bihurtu bait zitzaigun. Euskal Herriko etnografia izan zen ikastaroaren abiapuntua eta eskoletan bereziki Euskal Herriko kultura herritarrari buruzko galderak egiten zizkigun. Gogoan daukat Jose Mari Satrustegik atera zuen ondorio nagusia. Iragan bateko sinesmen eta mundu ikuskerari dagokionez, ikasle gehienok, 1969an, kultura tradizionalarekiko ia erabateko eten sakonean bizi ginela iruditu zitzaion. Izan ere, Markina aldeko ikasle bat gai izan zen etxean entzundako ipuinen berri emateko eta bestelako kontu batzuk. Nolabait adierazten zuen banaka batzuen artean oraindik transmisioa gertatzen ari zela.

Neure artean orduan gogoratu nituen «Peru ta Marijen» ipuinak, nire aitxitzek, Martin Zigorragak (1896), kontatzen zituenak. Hamalau urte zituela, itsasontzi batean Erandion marinel enbarkatu zen eta ondoren, munduan barrena ibili ondoren (Gales, Ingalaterra, Ipar Ameriketako Estatu Batuetan, Kuba, Katalunia eta Soviet Batasuneko Odessa, estalinismoaren bidezko abantailak eta kalteak ezagutuz, hego Ameriketara), itsasontziei agur esanez, lehorrean egokitu, lurra eta etxea erosi eta bere azken urteetan baserritarra bihurtzeko aukera izan zuen. Bere ume aroan Musetiko baserrian entzun eta ikasitako ipuinak gogoan zituelarik, guri, ilobei, neguko arratsalde luze eta ilunetan kontatzen zizkigun. Hara nondik, Satrustegik garrantzitsu bihurtu zidan garai bateko ipuin barregarrien ezagutza hura. Anjel Lertxundi idazleak herri jakituriazko ikuspegi eszeptikoaren adierazle bihurtu ditu. Eta horren harira, ikastaroaren bukaeran, ipuin eta antzeko

sinesmenak arakatzen hasi nintzen neure inguruan. Amumari ipuinen berri emateko eskatu nion eta igetargian edo ilargian bizi zen gizonaren ipuina kontatu zidan, baita beste batzuk ere. Ohiko bizimoduaren ezagutza eta mundu ikuskeraren egarria biztuta nuen ordurako. Egia esan, beste giro batean heziak ginen etxean, Busturiko herrian, aita itsasgizona izanik kanpoan zebilen eta noiz behinka ikusten genuen; hori bai, etxean Argentina eta Brasileko produktuak kontsumitzen genituen. Gainera, Busturiko herria aldaketa sakon batean sarturik zegoen 1960ko hamarkadan.

Beraz, euskal kulturari buruz, bai tradizionala zein jakintza araututakoan ezjakina nintzela jabetu nintzen, nolabaiteko ezgaitua. Esperientzia hori bera euskararekin ere gertatzen ari zitzaidan.

Aurreko urtean, 1967-1968 ikasturtean, Mikel Zarate izan genuen euskararen irakasle. Xabier Peñaren liburua genuen ikasgai eta ez nuen ekaineko azterketa gainditu. Ikaskide batzuen ustez, irakasgai hori ez zen premiazkoa baina nire ustean, aldiz, bai, niretzat nekeza izan arren. Ez zen ohiko irakaskuntza arautuko ikasgaia. Baina, hala ere, udaran neure kabuz saiatu nintzen urtean zehar ikasi ez nuena ikasten eta Mikel Zarateri iraileko aukera erabili nahi nuela agertu nion, gaia gainditu ahal gainditzeko. Nire eskakizunaz harritu egin zen baina azkenean bere bulegoan egin zidan azterketa eta gainditua nuela adierazi zidan. Ondoko urtean gogo biziz saiatu nintzen euskarazko testuak eta literatura lantzen, eskolak gustura hartzen nituen eta ondo gogoratzen dut ortografia berriaz aritu izan zela Mikel Zarate irakaslea eskolan, zorioneko «h» hizkia dela-eta, euskara batuaren eztanda giroan. Arantzazun Euskaltzaindiak erabakitakoaren berri eman zigun eta aldi berean Bizkaiko euskarazko literatura landu ere bai.

Garai berean, Busturiko herrian antolatutako alfabetatze ikastaroetan nintzen ikasle, Elisa Kaltzadaren eraginez eratua, Altamirako Juan Felix Elorrieta irakasle zelarik. Busturiko Axpeko gizarte-etxean antolatu ziren ikastaroak eta guzti honek herriko kulturgintzan barneratzeko bidea eman zidan; gazteekin lan taldeak eta egitasmoak asmatzen ari ginen. Asteburuetako nire ekintza bidea zen eta giro honetan ernetu zen etnografiaren bidezko esperientzia berria.

Filosofia ikasketak abadegintzaren programan burutu nituen urteetan, 1970-1972 ikasturteetan, Juan Mari Apellaniz arkeologoak heriotzari buruzko mintegia eratu zuen eta Joxemiel Barandiaranen inkesta etnografikoaren

zati bat hartu eta norberak bere herriko esperientzian oinarriturik, inkestaren heriotzari buruzko atala betetzen hasi ginen.

Baina hara non handik epe laburrera, Joxemielekin lanean hasteko pribilejioa ere izan nuen. Beste maisu batek, Ander Manterolak, nire matematiketako irakasle ohia izan zenak, Joxemielekin harremana hartu eta 1972an Etniker antolatzen abiatu zen eta etnografiatzko ikastaro trinkoa antolatu zuen Derion, 1973ko maiatzaren 19 eta 20an³. Ander Manterola irakaslearekin izandako harremana liburu zaletasunetik abiatu zen eta euskal gaietako biblioteca antolatzeke egitasmoan laguntzeko deitu zidan. Horrela, biblioteca orokorretik bereiztu eta euskal gaietako biblioteca sortu zuen Derion. Euskal Herriari buruzko aldizkariak eta liburuak eskura izatea eta irakurtzea plazer eder bezala gogoratzen dut. Leku zabala eta eroso. Horrez gainera, liburutegi orokorra ere interesgarria zen, bertan eskuragai genituen marxismoari buruzko hainbat liburu.

Giro honetan, etnografiari buruzko ikastaro trinkoa burutu ondoren, Joxemiel Barandiaranek eguneratu zuen inkesta etnografikoa lantzen hasi nintzen Busturin eta ohiko ekintza bidearen atal bihurtu nuen. Joxemiel Barandiaranek larunbat goizetan Iruñean Nafarroako Unibertsitatean Euskal Herriko etnografia irakasten zuen, eta noizbait eskolara ere joan ginen, ondoren, arratsaldean, Príncipe de Vianako elkartearen, Nafarroako Etniker taldekoen bileran parte hartzeko ere bai. Bertan ezagutu nituen Jose Maria Jimeno Jurio eta Tomas Urzainki, besteak beste. Guretzat *Cuadernos de Etnología y Etnografía* argitaratu zituzten inkestak ziren hurbileko ereduak eta Jimeno Juriok Artaxonari buruz argitaratutakoak ikuspegi historikoan sakontzen zuen.

Busturiko etnografia eginez

Beraz, 1972an hasi nintzen inkestaren lehen zatia betetzen. Bermeon Anton Erkoreka hasi zen inkesta betetzen eta laguntza handia izan zen ondoko herrian ere horrelakoak burutzen ari zela ikustea, zalantza eta argibideak lortu eta ulertzeko.

³ Bizkaiko Etnikerren hastapenak ezagutzeko, ikus: Manterola Ander & Arregi Gurutzi, *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiarán (1889-1991)*. Ataun: José Miguel de Barandiaran Fundazioa, 2003.

Ordurako, heriotzari buruzko atala egina nuen. Informazioa jasotzea ez zen erraza izan, gaia ez zelako hain atsegina. Etxearen atalaz eta inguru giroaz aritzeko, Bilboko Merkatal Ganbarak argitaratutako «Gernika-Bermeo» eskualdeari buruzko azterketa hartu nuen. 1972an argitaratu zuen azterketa sozio-ekonomikoa, mugarik gabeko garapen itsuan oinarriturik, ekonomia-
ren hazkundea aurre ikusten zuen⁴. Baina liburuko datu soziologikoak aintzat harturik, etxeari buruzko ikerketa etnografikoa bertatik bertara aztertu nuen. Herri guztia etxez-etxe arakatu nuen. Neure inguruko Axpeko mutilagunak izan nituen laguntzaile eta bereziki lagungarriak izan ziren baserri etheen planoak burutzen. Herriko etxe guztiak bisitatu nituen, etxe guztien ize-
nak jaso eta katalogo zehatza burutu nuen, mapa batean kokatu ere, jakin gabe 1927 urte inguruan Bizkaiko mapa zehatza egiteko lan berbera egina zegoela Bizkaiko Aldundian. Horrez gainera, etxearen egitura eta funtzioari buruzko bereizketa zehatza ere asmatzen saiatu nintzen. *Corpus* enpiriko zehatza burutu ondoren, datuen beste irakurketa egiten saiatu nintzen eta, horrela, baserri etheen % 30 hutsik zeudela agertu zitzaigun eta gehienak eguzkiari begira eta hegoaldera so eraikiak zirela⁵.

Beste atalak burutzeko emakumezkoak izan ziren nire iturburuak, etxe-
koak eta auzokoak. Emakumezkoen ardurapeko eguneroko gaiak zirelako agian, baina baita gizonezkoak itsasoan eta bestelako lanbideetan zeudenez, asteburuetan lantzen nuen etnografian, emakumezkoen jakinduria eskura-
garriagoa eta errazagoa jasotzeko bide nuelako. Etxaldearen inguruko erai-
kin eta bestelako elementu materialak jaso ondoren, janaria eta janzerari buruzko atalen inguruan berba egiteko prest zeuden emakumezkoak. Hala ere, hurrengo atalean, etxekoen arteko harremanenean, senar-emazteen artekoen atalean, informazioa nekezago hartzen nuen, baina iturria ere emakumezkoena zen. Ez zuten hain gogoko senar-emazteen arteko harremanen inguruan aritzea eta egia esan zaharrenak, amuma zirenak, etxekoen eta senar-emazteen arteko harremanei buruz errazago ari ziren.

⁴ *Estudios socio-económicos comarcales. Guernica-Bermeo*. Bilbao: Publicaciones de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao, 1972.

⁵ Agirreazkuenaga, Joseba, «Busturia. Grupo doméstico I», *Anuario de Eusko Folklore, 1973-1974*. San Sebastián: Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi, 1975, T. XXV, 23-150 orr.

Jatorrizko testuan ez nuen behar den beste azpimarratu baina esan beharrekoa da, arlo honetan, senar-emazteen arteko harremana moral katolikoaren arabera arauturik zegoela, batik bat XIX mendean Leon XIII aita santuak 1880ean argitaratu zuen entziklikan, «*Arcanum divinae Sapientiae*» delakoan. Entziklika hori zuten iturburu herriko abadeak eta bertan agindutako moralean hezituak izan ziren nire emakumezko informatzaileak.

Deustuko Unibertsitatean ikasle nintzela, Ander Manterola, Gurutzi Arregi eta Anton Erkoreka eragile zirelarik, jarraitu nuen nire etnografia lanarekin. Honela, azkenean 1974an amaitu nuen inkestaren lehen zatia.

Deustuko Unibertsitatean historiari buruzko ikasketak hasi nituen baina, aldi berean, arratsaldeetan soziologiakoak ere burutu nituen. Soziologiako Fakultateko irakasleen eskolak askoz ere interesgarriagoak ziren niretzat eta bereziki Euskal Kultur Mintegiko esperientzia dut gogoan. Mintegiko kide aktiboa nintzenez gero, etnografiari buruzko lana euskaraz idaztea izan zen nire lehen asmoa, baina Joxemielek esan zidan, zientzia ekarpenak ahaleginez hizkuntza hedatuetan zabaldu behar zirela eta beraz, nire ekarpena gaztelaniaz idaztea eskatu zidan. Halere, *Anuario de Eusko Folkloreko* zenbaki berean, Latxaga apaizak Orexan egin zuen inkestaren emaitzak euskaraz argitaratu zituen.

Horrela, jatorrizko informazio guztia euskaraz jaso nuen, euskarazko testuak sartu eta bere horretan adierazten saiatu nintzen, Joxemiel Barandiaranen zuzendaritzapean. Etniker inkestaren bigarren ekarpena argitaratu nuenean, euskaraz argitaratu nuen, A. Erkorekaren zuzendaritzapean burutu zen proiektuan⁶.

Euskal Kultur Mintegiko ikasleak zientzi eremuan ere euskaraz aritzea eta trebatzea nahi genuen. Euskarazko testuak euskal komunitatearentzat idazten genituen eta ditugu, komunitate euskaldunak ere zientzia eremuan aritu behar zuelako eta duelako. Historiografian eta beste eremu batzuetan, euskararen edo foruen aldeko apologisten joera kritikatzeko genuen gaztelaraz soilik idazten zutelako, mezuaren hartzaileak Gaztela eta Espainietako eliteak zirelako. Beraz, Euskal Herriari buruzko ikerketak bestelakoei begira idatzi

⁶ Agirreazkuenaga, Joseba, «Busturia. Grupo doméstico II», in *Contribución al Atlas etnográfico de Euskalerría. Investigaciones en Bizkaia y Gipuzkoa*, Anton Erkoreka (zuzendaria), San Sebastian: Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza, 1988, 271-304 orrialdeak.

behar ziren, aitortuak izateko. Baina horren premia ukatu gabe, zientzia gaiak hizkuntza hedatuetan idatzi behar direla, euskaraz ere gure baitako berezko komunitateari begira idaztea eta argitaratzea ezinbestekotzat jotzen genuen eta dugu. Beraz, ikerketen emaitzen argitalpena eta komunikazio zientifikoa, norberaren komunitateari begira ere egin behar dugu.

Laburbilduz, gaurko ikuspegitik zera agiri da, Busturiko herritarren gainean datu bilketa oparoa eta herritarren bizimodua eta baloreak ulertzeko informazioa dagoela 1975ean argitaratutako lanean. Duela 50 urteko fitxak berrikustean nagoen honetan, beharbada laster batean eranskin bat burutu beharko dut, aldaketak aztertzekeo baliagarriak direlako artxibaturik ditudan zintak, eta bertan jasotako informazioak.

Iraganeko gertakizunen eta isileko bizipenen etnografia historia bihurtuz

Etnikerlariaren esperientzian abiatu ondoren, herritarren iraganean murgiltzeko aukera izan nuen. Isileko eta agerikoak ez ziren sakoneko bizipenak ezagutzeko aukera alegia, bereziki emakumezkoenak, azken batean, ikuspegi historikoaren atal bihurtzeko.

Lan etnografikoan barrera 1936an, II. Errepublika desagiteko eta Espainian aginte politikoa eskuratzeko lehen porrotaren ondorioz, gerra biztu eta zabaldu zuten militarrek eta zibilek. Ezinbesteko gertakizun eta erreferentzia kronologikoa bihurtu zen, gerra giroa gizarte osora zabaldu zelako eta ordutik, hainbat ohitura eta gertakizun, gerra aurretik eta gerra ondoren esaldia erabiliz kronologikoki kokatzen ziren. Pentsaeren prozesuan eta bizimoduen bilakaeran eragin handikoa izan zen.

Gerra giroan, Busturin frankisten aldeko armada irabazlea 1937ko apirilaren 29an sartu baino lehen, Eusko Jaurlaritzaren agindua jarraituz populazioaren % 20k alde egin zuen; ondoren agintari berriek, frankista eta monarkikoek, errepresio bortitza eragin zuten. Nire emakume informatzaile batzuk alargunak eta umezurtzak ziren, senarra edo aita fusilatua izan zelako. Gertatutakoari buruz albisteak biltzen nituen eta jakin-mina ere biztu zitzaidan eta, nola ez, egoera soziopolitikoaz jabetu nintzen. Horietako umezurtz bat Julen Kaltzada abadea zen eta une horretan Zamorako espetxean zegoen.

Horrela, lehendabizi etxekoak izan ziren eta ondoren, 1937an fusilatuak izan ziren gizonen alargunak eta umezurtz gelditu zirenak osotu zuten nire ohiko etnografiarako berri emaile taldea; horiekin ezinbestean isilean gordetakoak ere azaldu zen eta, ondoren, ni neuk ekin nion ikertzeari.

1967arte fusilatuak izan ziren herritar zibilak katolikoak izan arren, senitartekoek debekaturik izan zuten euren arimaren aldeko elizkizunik antolatzea. Informazioa jasotzen hasi nintzen eta etnografia burutzea ezinbestekoa gertatu zitzaidan, etnografiaren bidez baino ezin zelako arazoa sakonean aztertu. Honela, 1986an, UPV/EHUko gaur eguneko historia sailak Manuel Tuñón de Lararen zuzendaritzapean, 1936 gerraren 50. urteurrenean Jardunaldia burutu zuenean, nire ekarpena zibilen kontrako Francoren errepresioa izan zen, Busturiko kasua aztergai nuelarik⁷. Une horretan Espainiar armadaren artxiboetan espedienteak arakatzea ez zegoe-nez eskuragarri, etnografiaren bidez aztertu nuen errepresioa eta, esparru akademikoan, errepresio frankistari buruzko lehen azterketa bihurtu da. Esperientzia etnografikoaren ondorioa izan zen zuzen-zuzenean eta, aldi berean, XX. mendeko historia argitzeko eta ezagutzeko ere baliagarria izan da.

Etnografia, etnologia, historia

1976an Joxemiel Barandiaranek Etniker taldeen konfederazioa antolatu zenean esandakoa aintzat hartzekoa da:

«Ya sabéis que nuestro intento es precisamente conocer el pueblo vasco; conocerlo en su vida, tal como vive actualmente. No estamos por una etnografía histórica; es la vida actual la que nos interesa. [...] La mejor manera de interpretar un hecho es haberlo vivido, haberlo experimentado»⁸.

Beranduago, 1984an azpimarratzen zuen:

⁷ Agirreazkuenaga, Joseba, «Armada frankistaren sarreran: errepresioa eta heriotzak Busturialdean», in *La guerra civil en el País Vasco. 50 años después*. Ed. C. Garitaonaindia & J. L. de la Granja. Bilbao: UPV-EHU, 1987, 329-345 orr.

⁸ Euskalerria Etniker taldeetako akta liburua, 2 orrialde. Gurutzi Arregik idatzitako txostenean aipatua: *Atlas etnográfico de Vasconia: Un proyecto de Don José Miguel de Barandiaran elaborado por los Grupos Etniker Euskalerria*.

«He insistido muchas veces que en la labor etnográfica hay que describir lo actual. [...] En las investigaciones ETNIKER tenemos en cuenta no solo la cultura actual, sino la cultura de hace cincuenta, sesenta o setenta años, desde el momento alcanzado por nuestros informantes, con vistas a colocar los fenómenos actuales dentro de un proceso»⁹.

Joxemielen inkesta eta arauetan, ikuspegi positibista gailentzen da, egitateak, datuak ondo biltzea da helburu, ohiturak eta joerak azaltzea, subjektibotasuna ahaleginez alde batera baztertuz. Baina, prozedurak eta bilakaerak azaltzea ere eskatzen zuen. Azken batean, *etnikerlari* bakoitzaren esku gelditzen zen subjektibotasun hori era egokian datua bihurtzea. Gertakariak pertsonaren ikuspuntutik ulertzen saiatu behar dugu, gertakari sozialak etnografia sakonetik, datu kualitatiboak pilatuz, giza banakoren arazoak ulertuz, sinesmenak, mundu ikuskeren adierazpenak bere horretan hartzeko. Etnografia eta etnologiareneko bereizketa hori ez da hain nabarmena. Beraz, etnografia praktikatzeko, lehen unetik onartu beharra dago subjektibotasuna ere erabiltzeko, komunitatearen kide eta partaidea garen heinean, baina horregatik hain zuzen ere ekarpen etnografikoa ezagutzeko sendoa bihurtzen zaigu. Zientziaren sorrera ez dago norberarengandik at, gugandik aparte, gure esperientziaren zati eta isla delako baina aldi berean transferentzia bidez transmititzeko gai ere behar du izan.

Joxemiel Barandiaran prozesuak zehaztearen aldekoa zen eta bere has-tapenetan Etnografia lehen historiaren argibide izan zitekeela aldarrikatu zuen. Lehen historiako bizimoduaren superbiak arakatzeko eta bilatzen saiatu zen. Bestalde, bere garaian, jatorriari buruzko galderekin gidatu zuten ikerkuntzaren ikur nagusia, jatorriak zuelakoan edo eragiten zuelakoan azalpenaren iturri prozesuak eta gertakizunak ulertu eta azaltzerako unean. Azken batean, jatorritasuna ezagutzeko balio zuelako jatorriaren ezagutzak, ikuspegi jatorrak onaren sinonimo eta ongilea bihurtzen zuelako.

⁹ Manterola, Ander, «Entrevista con D. José Miguel de Barandiaran», in, *Euskaldunak*, 4 liburukia, Donostia: Etor, 1984, 296 orr.

«El joven que quiera formarse como investigador competente en el campo de la etnología no debe tener ninguna prisa por formular hipótesis, teorías o interpretaciones [...] sin investigación no se puede gozar de autoridad en los medios científicos».

«Los que hayan investigado y descubierto fenómenos y datos antes desconocidos podrán tener alguna autoridad para decir algo sobre su significación o interpretación» (283 orr.).

Baina *Anuario de Eusko Folkloreko* 25 zenbakian argitaratu ziren etnikerlari lanak, Busturia eta Bermeo, Orexa eta Goizueta buruzkoak, gertatzen ari zen aldaketaren adierazpena ziren, aldaketa prozesu hori dokumentatzeko garrantzitsuak ziren eta horren jabe zen Joxe Miel Barandiaran.

Anuario de Eusko Folkloreko 25. aleko sarreran, Joxemiel Barandiaran guztiz arduraturik agiri da bizitzen ari ginen aldaketaren erritmoaz. Eta sakoneko aldaketa sinesmenen esparruan kokatzen zuen:

«el entramado y aun las bases del humanismo tradicional del pueblo vasco se van cuarteando a buen paso en los últimos lustros. Los elementos de la conciencia pública –la representación del pasado histórico y del destino humano o la visión del futuro y el programa general de la vida– antes orientados hacia una meta que trasciende al hombre y el mundo físico y hoy en conflictos con el materialismo y con el agnosticismo de horizontes propincuos o aledaños, aparecen un tanto obnubilados y aun marginados en partes de ese dédalo de apetitos y de tendencias anárquicas de la presente revolución sicológica, [...] un problema de civilización»¹⁰.

Horrela bada, nolabaiteko etnografia historikoa egitea ere eskatzen eta proposatzen zigun.

Etnografia historikoa egitea premiazkoa da eta gure lana, adibidez, jadanik etnografia historikoaren zati bihurtu da. Inkesta betetzen hasi nintzenean informatzaileek beraiek berehala ematen zidaten aldaketaren berri, lehena/ iraganaren? eta orainaren arteko aldaketa. Beraz, behin behineko, uneko behaketa partehartzailea izanik, aldi berean bereizketa edo bilakaeraren berri emateko premia berehala ateratzen zen. Horregatik, galderen inguruan bilakaera azaltzeko premia ikusten nuen.

Horrez gainera, 1920ko *Anuario de Eusko Folklore*n argitaratu ziren ekarpenak irakurri ondoren, historiografiaren arloan sartu behar dugu Joxemiel Barandiaranen ekarpena. Etnografia eta ahozko informazioaren balioa premiazkoa bihurtzen baita XX. mendeko historiografia aztertzeko unean. Barandiaranen ekarpenak aipatu eta baloratu egin ditugu gure azterketa historiografikoetan, bereziki *lege zaharraren* desagerpen prozesuaren berri

¹⁰ Barandiaran, José Miguel, «Prólogo», *Anuario de Eusko Folklore*, 1973-1974. San Sebastián, 1975, 7 orr.

jaso eta adierazten digulako¹¹. Horrez gain, 1924an fenomeno sozialen jatorri eta zabalkundeaz ere historian barreneko gogoetak eta interpretazioak burutu zituen¹².

Euskal Herriko Atlas etnografikoaren ikerketa taldea azpimarratuz

Atlasaren zortzi liburukote handiak, formatu handiko bata besteko bakoitzak 850 orrialdekoa, ikerketa talde zabal baten ekarpenak ditugu. Zientziaren ikuspegi erromantikoa alde batera uzten du Atlasen eginkizuna. Sarritan zientziaren ekarpenak pertsona baten izenari lotzen dira, baina gaur egunean hori ez da horrela gertatzen. Ikerketa taldeak dira ekarpenik nabarmenenak egiten dituztenak, eta horixe bera da Atlasaren ekarpenik nabarmenena. Ikerketa talde sendoa sortu da Ander Manterolaren zuzendaritzapean eta aipatu liburukoteak posible izan dira ikerketa taldea egonkortu delako Euskal Herriko Etniker taldeen artean. XX. mendeko ohiko bizimoduen ikuspegi bildua lortzen dute.

Lehen liburukotearen sarreran, janariari buruzkoan, historian barreneko bilakaera adierazteko ekarpen laburra idatzi nuen, XX. mendeko janari ohiturak aztertzerako unean, ezinbestekoa baita denboran barreneko aipamena egitea, bereziki azken lau mendeetan gertaturiko aldaketak. Lehen mundializazio prozesuan, XVI-XVII mendean euskaldunak, bereziki itsasaldeko euskaldunak, partaide zuzen zuzenak izan ziren eta Euskal Herriko janari ohituretan sakoneko aldaketak gertatu ziren.

Atlaseko liburukote bakoitzak, ikuspegi entziklopedikoa erakusten du. Ahoz ahozko testigantzen bidezko bizipenak sistematizatzen ditu, bestelako interpretazioetarako sorburu aberatsa izanik. Beraz, Atlasetan bildutakoa *corpus* baten erakusle ere bada eta historialariontzat ezinbesteko erreferentzia. Emaitzak bezain besteko garrantzia du izandako esperientzia etnografikoak, etnikerlariarena eta hau ere aztergai bihurtzen da. Beraz, etnografiaren ikuspegi entziklopediko horrek jarraipena beharko luke eta, ikerketa talde berrituen bidez, etnikerlari berriek ekarpenak sortuko dituztela espero dugu.

¹¹ Agirreazkuenaga, Joseba, «La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales», *Historia Contemporánea*, nº 7, Bilbao: UPV-EHU, 1992, 257-281 orr.

¹² Barandiaran, José Miguel, «Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales», *Anuario de Eusko Folklore*, 1924, IV, 153-229 orr.